

Maiatzak 17. LGTBI+ fobiaren aurkako manifestua

1990eko maiatzaren 17an Osasunaren Mundu Erakundeko Batzar Nagusiak gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zuen homosexualitatea. Hogeita zortzi urte geroago, genero, identitate eta adierazpen aniztasunaren garrantzia azpimarratu eta kolektiboaren eskubideak aldarrikatu nahi ditugu. LGTBI+fobia presente baitago oraindik ere gazteon errealitatean.

Ideologia patriarkal eta heterosexista oinarri duen gizarte batean bizi gara eta honek LGTBI+ pertsonenganako gorrotoa¹, eskubide urraketa eta norberak bere baitan duen aniztasuna eta bizipen konkretuen garapen eza ekartzen du. Zentzu honetan, gazteok ezin dugu gure identitatea, izaera eta orientazioa era aske batean adierazi.

Eskaerak

Aniztasunean eskubide berdinekin bizi ahal izateko bide honetan, hainbat eskaera proposatzen ditugu LGTBI+fobiari aurre egiteko:

- Trans* despatologizazioa eta trans* pertsonen errealitatearekiko akonpainamendua.

Lege mailan aldaketak ematen ari badira ere, trans* pertsonak oraindik ere, dokumentazio ofiziala lortzeko patologizatuak izan behar dute. Hau da, beraien egoeraren ulerpena jendarteak burutu behar izaten du, pertsona trans*ak eraikuntza sozial bezala sistema bitarra kolokan jartzen dutenean, horregatik batez ere patologizatuak izaten dira. Egoera honekin amaitzeko eskatzen dugu. Bestalde, gazte transen* eskaerak edozein izanik ere, beraien eskubideak egoki berma daitezen nahi dugu.

- Lan munduan bazterketa eza ziurtatzea.

Lan munduan zuzeneko eta zeharkako diskriminazioak sortzen dira heteronorma ez jarraitzeagatik edota genero identitate hegemonikoarekin hausteagatik. Hori dela-eta, esparru

¹ 2017an Euskadin orientazio eta identitatearekin zerikusia zuten 32 kasu eman ziren. Ikusi: <https://bit.ly/2JznQTg>

ALDARTE. 2018. Sexu-joeragatiko eta genero identitateagatiko gorroto-delituei aurre egiteko estrategiak: begirada orokor bat. Begiradak batuz. Ikusi: <https://bit.ly/2LHyKHB>

honetan neurri zehatzak hartzea beharrezkoa dela uste dugu, LGTBI+ fobia oinarri duten laneko jazarpenak saihesteko eta bazterkeria oro ezabatzeko.

- Amatasun eta aitatasun eskubide osoa.

LGTBI+ kolektiboko pertsonak zailtasunak dituzte familia bat eraikitzerako nahia dutenean hainbat prozeduren aurrean (adopzioarako zailtasunak, beste bide batzuk erabiltzeko zailtasunak...). Hori dela-eta, familia bat sortzeko eskubidea urratu ez dadin eskatzen dugu.

Hala, EGK-ko Gaur8 taldetik, non gaur egun ALDARTE elkarteak aurkitzen den, egun konkretu honetan eginiko eskaeretatik haratago, indarkeria LGTBI+ fobikoaren aurrean administrazioari eta gazteriari planteatzen zaizkion hobekuntza proposamenak kontuan izatea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Administrazioari:

- Harrera juridikoari dagokionez:
 - Tratu, neurrien ezarpen eta kontrolaren hobekuntza; hauek biktimaren ongizate integral bat bidera dezaten.
 - Legediaren eraldaketa: indarkeria sistematikoa hau bere testuingurua kontuan izanda aztertzea eta tratatua izatea baimenduko duen lege bat.
- Prebentzioari dagokionez:
 - Hezkuntza indartu:
 - Hezkuntza sozializazio prozesu bezala ulertu.
 - Aniztasuna, hezkidetzak, heziketa sexuala, adimen emozionala... era sakon zein zeharkako baten landu.
 - Gizarte eragile guztiak barne hartu.
 - Sentsibilizazioak eta bestelako efektu ekintzak burutu.
 - Prebentzio neurrien diseinuaren hobekuntzari begira, errealitate honi buruzko ikerketak eta datu eguneratuak eduki eta landu esparru honetan lanean ari diren elkarte eta eragileekin batera.
 - LGTBI+ behatokia sortu. Egun ez dago aukerarik ez eraso ez aniztasunaren gainean informatzeko (Behatoki integralik, Behatokiaren baten sailik...) eta hau ezinbestekoa da. Berebiziko premia du kolektiboak bizi dituen bereizketa mota guztiak ezagutzeko eta bere eskubideen alde egiteko Behatoki bat sortzeak.

- o Egun indarrean dauden zerbitzuak hobeto hornitzeko beharra aldarrikatu. Eraberean Sarea edota Berdindu Zerbitzua esaterako.
- Arazoaren trataerari dagokionez:
 - o Bereizketa faktore anitzen intersekzioaz eta honen inpaktuaz arduratzea ezinbestekoa da.

Gazterari:

- Errespetua eta inplikazioa:
 - o Erasoen aurrekari diren jarrera LGTBI+ fobikoei fretoa bota eta hauen larritasuna ulertu.
 - o Erasoen testigu izatean, ez isildu, esku-hartu eta erasoak jasan duena babestu.
- Indarkeria LGTBI+fobikoa eta honen sustrai diren beste indarkeria eta jarreraren aurka ekin:
 - o Norbere burua eta ingurukoena kritikoki aztertu eta eraldatu aniztasunaren idearen alde.
 - o Indarkeria LGTBI+fobiko edota honen ideologiarekin harremana izan dezaketen Indarkeriei aurre egin (Indarkeria Matxista, maitasun erromantikoan oinarritutako bikoteen arteko indarkeria...).
- Aniztasunarekiko konpromisoa eta gizarte eraldaketa. Kontuan izan Indarkeriaren sustrai estrukturala kontuan izan eta honen gainean ekin. Aniztasunean bizitzea eskubide berdintasuna izanik guztion artean lortuko dugun zerbait da eta!

Honen aurrean Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik gazterian ematen den LGTBI+fobia salatu eta aniztasuna indarrean jarri nahi dugu, gazteen arteko bizi proiektuetan aniztasuna bermatua eta sustatua egon dadin.